



Soldata eta zerga urriekin ez dago ez pentsio publikorik, ezta enplegurako BGA Erik ere

2018ko urriaren 12a

EAEko hainbat erakundek (Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak) adierazpen edo proposamenak egin dituzte Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE) buruz. ELAk gai honetan posizioa finkatu izan du. Ondorengo agirian jaso ditugu gure ustez une honetako zertzeladarik nabarmenenak direnak.

Aurrekariak

Hainbat eratako BGAEak badira:

- Jatorriari dagokionez- Erakunde batzuk “enplegukoak” deitzen dira (hots, negoziazio kolektiboan sortuak, sindikatuen eta patronalaren arteko hitzarmenen fruitu), eta beste batzuk “banakakoak” (finantza-erakundeek sortzen dituztenak aurrezteko eta zergak arintzeko).
- Ikusmoldeari dagokionez- Erakunde batzuren xedea da pentsio-osagarri bat sortzea (oro har, hau da enpleguko kasua; borondatezko erreskatea galarazita dute babestu beharreko egoerak gertatu ezean), eta bestea, aldiz, ez (banakakoek 10 urteren buruan borondatezko erreskatea egiteko aukera ematen dute, eta horrenbestez finantza-tresna eta zergak arintzeko bitarteko hutsa dira; pentsio-osagarria aukera bat besterik ez da kasu hauetan).

Euskal erakundeek beren politikaren poderioz BGAEak finantza-bitarteko huts izatera bideratu dituzte (erreskatea 10 urteren buruan egin liteke; tratu fiskal okerragoa ematen diete pentsio-osagarriari inbertsio osoaren erreskateari baino; ustez enpleguko BGAEak banakakoek gaineratik lehenetsiagatik, hau ez da ezertan gauzatzen...). Joera hau errenta handiena dutenen mesedetan doa.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak BGAEen Legea aldatu egin zuen enpleguko erakundeetan gehiago sindikalaren aurkako erabakiak errazte aldera. Hori baino lehenago erabakiak hartzeko beharrezkoa zen alde bakoitzaren gehiengoa (sindikala eta enpresarioena), eta arau aldaketak ezarri zuen aski zela gehiengo sinplea. Hots, urratu eta gutxietsi egin ziren arau demokratikoak eta negoziazio kolektiboan erabakiak hartzeko prozedura (alde bakoitzaren gehiengoa).

ELAk garai batean enpleguko BGAEen aldeko jarrera hartu zuen; horrela sortu ziren Geroa edo Elkarkidetzak. Alabaina, egin izan diren lan eta negoziazio kolektiboko erreformek goitik behera aldarazi dute negoziazio kolektiboa; hau krisi larrian dago eta litekeena da krisi horrek luze jotzea; noski, honek eragin zuzena du negoziazio kolektiboan jorratzen diren gaietan, baita BGAEetan ere.

Bestalde, arlo publikoan negoziazio kolektiboa urratzea ere joera beraren ondorio da: administrazioetan lan-baldintzak alde bakarreko erabakiz inposatzen dira (soldata, lanaldia...). Zehazki, Eusko Jaurlaritza ez da sinesgarria BGAEak hedatu beharrez mintzatzen denean, Itzarrirako (Eusko Jaurlaritzaren langileen BGAEa) ekarpenik ez egitea erabaki duelarik: Ordurarte %3ko ekarpena egitetik ezer ez jartzera pasa zen, eta 2013tik aurrera bereari eutsi zion murrizketaren errua espainiar Gobernuari ezin egotzirik geratu arren. Orain ekarpena %1ekoa da.

EAEko instituzioen proposamenak

EAEko instituzioek bi eratako proposamenak aipatu dituzte:

- Eusko Jaurlaritzak bi inbertsio-funts eratu nahi ditu, eta haren ustez BGAEek eginkizun bat izan dezakete, baliabide ekonomikoak jartzea.
- Jaurlaritzak zein Foru Aldundiek (enfasi maila desberdinekin) adierazi izan dute BGAEak hedatzea ona litzatekeela, eta beraien gaineko fiskalitatea hobetzeko asmoa ere badute.

Haatik, ELAk ez du jaso honen inguruko proposamen konkreturik, komunikabideetan agertu denetik haratago. Ez dakigu EAEko erakundeek benetan zer asmo duten. Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek ez dute inolako parte hartze prozedurarik prestatu sindikatuok funts horiei buruz iritzia eman edota diseinuan eragin ahal dezagun. Gauza bakarra dakigu: Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburuak esan du urtea bukatu baino lehenago bilduko dela Gizarte-Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua, eta bere proposamena bertara eramango duela. Kontseilua behin bakarrik bildu da, 2016an eratu zenean, eta ordutik hona ez du jarduerarik izan.

ELAren posizioa

Horrenbestez, ELAk honakoa adierazi nahi du:

1. Hau beste propaganda ariketa bat da, zeina Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien ohiko funtzionatzeko modua den. Deitoratzekoa eta salatzen da hainbesteko garrantzia duen gai honetan horrela jokatzeko. ELAk erakundeek galdegiten die proposamen konkretuak egin ditzatela, horien gainean taxuz eztabaidatu ahal izateko.
2. ELA bat dator herri-erakundeak enpresen kapitalean sartzeko beharrez dagoela, baina egitekotan baldintza batzuk bete beharko liriteke. Funts publikoen partaidetza izango bada baldintza izan behar da enplegu duina bermatzea (prekaritatez edota soldata-arrakalarik ez, negoziazio kolektiboa errespetatzea, lan-osasun baldintzak, euskara sustatzea...). Halaber, euskal enpresa transnationalei exijitu behar zaie nazioartera joz gero aintzat hartzea giza-eskubideak, eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenarekikoak. Haatik, Eusko Jaurlaritzak ez du halakorik egiten kapitalean parte hartzen duen enpresetan.
3. Badirudi Jaurlaritzak gai honekiko interes bakarra duela, BGAEen diruaz baliatzea. Izan ere, ez baitugu ikusi inolako borondaterik benetako eztabaida hasteko, erakunde hauen benetako izaera zein den eta zein izan beharko litzatekeen erabakitzeko aldera. Gainera, itxuraz ez du BGAEei buruzko araudian aldaketarik egin nahi (esaterako, enpleguko erakundeetan erabakiak hartzeko moduan edota gorago aipatutako beste kontu batzuren inguruan). ELAren iritziz, ordea, premiazkoa da BGAEen legea eta araudia aldatzea.
4. Bestalde, instituzio hauek Kutxabanken -finantzetan tresna garrantzitsua izanik- zuten kontrol publikoaren galera eragin zuten, baita txalotu ere, bankarizazioaren bitartez eta kapital pribatuaren sarrera hobetsiz. Orain, berriz, BGAEen funtsak erabili nahi dituzte. Gai honetan izan duten jokabideak eragin duen gainbeheraren ardura politikoa hartu beharko lukete beren gain, izan ere, Kutxabankek (baita Jaurlaritzak berak ere) desinbertsio politika egin baitu hainbat enpresa traktoretan. Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek erabaki hauetan zerikusituz izan dute.
5. Azken urteetan pentsioetan hainbat murrizketa erabaki dira (zenbateko txikiagoa, eros-ahalmena mantentzeko bermea kentzea, erretiro adina 67 urteraino

atzeratzea...). ELAren lehentasuna pentsioei dagokienez da sistema publiko baten defentsa egitea; sistema publiko horrek bizimodu duina izateko aukera eman behar du. Gure borroka uneotan da ezarritako murrizketak bertan behera uztea, batetik, eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatzea, bestetik; horregatik ari gara pentsiodunen mobilizazioak babesten. BGAEen inguruko eztabaida orain plazaratzea kea barreiatzea besterik ez da pentsioak murriztea eragin duten alderdiek beren ardura ezkutatu nahi baitute: Esaterako, Urkullu lehendakariak politika orokorreko debatean esan zuen pentsioen auzia Toledoko Itunean ebatzi behar dela. Baina ELA ez da tranpa horretan eroriko.

6. Prekaritatearen hedapenak, zeina lan eta negoziazio kolektiboko erreformek eragin duten, berarekin dakar ordainpeko enplegua duen pertsona gero eta gehiagok soldata negargarria izatea eta txandakatze onartezina pairatzea, eta horrek galarazi egiten du bizi-proiektu buruaskia eramatea. Salatzen ari garen egoera honen emaitza pentsio maila oso kaskarra izango da. Iraingarria da sinetsarazi nahi izatea egoera horretan dagoen jendeak BGAE baterako ekarpena egin dezakeela, bere helburua halamoduz hilaren amaiera iristea denean. BGAEak ez dira pentsio publikoentzako soluzioa, are gutxiago kolektiborik prekarioenentzat.
7. EAEko instituzioek soldatak jaisteko politika sostengatu eta lagundu egin dute, zuzenean zein zeharka (azpikontraten beheranzko lizitazioa, patronalari emandako babesa...).
8. ELAk ez du onartzen gizarte-aurreikuspena zergak aurrezteko sistema huts bilakatzea. Beldur gara Foru Aldundietako adierazpen arranditsuek ez ote dituzten ezkutatuko zerga-arintze handiagoak, errenta altuek eta kapitalek gutxiago ordain dezaten, horrela jendartearen kohesioa areago hondatuz. Zergak jaisteko politika hau pentsio-sistema publikoaren kalterako ere bada, honek pentsio duinak bermatu behar baititu, izatekotan baita zerga bidez finantzatzuz ere. ELA zerga-politika honen aurka dago.
9. ELAk Geroan, Elkarkidetzan eta Itzarrin esango du une honetan ez dagoela baldintzarik BGAEek parte har dezaten Eusko Jaurlaritzak proposatzen dituen funtsetan.

ERANSKINA: BGAE ETA PENTSIONEN TRATU FISKALA

A) EKARPENAK

BGAEetarako ekarpenak eta Gizarte-Segurantzako kotizazioak PFEZ oinarritik kengarriak dira.

Halere, langile batek urtean Gizarte-Segurantzako kotizazioekin egin dezakeen kenketa gehienez 2.145,30 euro da (gehieneko oinarriaren %4,7), eta edozein BGAEetarako (enpleguko zein banakako) ekarpen kengarria gehienez 5.000 eurokoa izan daiteke (bikoitza baino gehiago).

B) PRESTAZIOAK

PFEZean prestazioek ordaindu beharrezko zergei dagokienez, pentsio publikoa oso-osorik hartzen da aintzat, zerga-oinarrian sartzen baita.

Aldiz, BGAEko prestazioak bi erataria jaso daitezke: kapital gisa (hots, gertakari eragilea izaten den unean osorik berreskuratuz) edota errenta moduan (hileroko ordaintzen den zenbatekoa):

- Errenta gisa jasoz gero PFEZean oso-osorik zergapetzen dira. Pentsioa bezala, PFEZaren zerga-oinarrian sartzen dira prestazio horiek.
- Prestazioa kapital moduan jasoz gero mesedezko tratua du: 300.000 euroraino (gehieneko pentsioko 9 urte adina) %40 salbuetsita dago, eta PFEZaren zerga-oinarrian soilik jasotako prestazioaren %60 sartzen da.
- BGAE hori enplegukoa nahiz banakakoa dela ere, tratu fiskala berbera da.

C) ONDORIOAK

BGAEei zergak ordaintzerakoan ematen zaien tratua pentsio-sistema publikoari emandakoa baino hobea da:

- Zerga-arintzea handiagoa da kopurutan langileek pentsio-sistema publikora egin dezaketene gehienezko kotizazioa baino.
- Kapitalaren erreskatea eginez gero prestazioen %40 PFEZetik salbu geratzen da, eta pentsioaren %100 PFEZean sartzen da. Gainera, kapitalaren erreskatea pentsio-osagarriak (hileroko sarrera) izan behar duen logikaren kontrakoa da.

ELAren posizioa:

- Pentsio-sistema publikoari ematen zaion tratu fiskala sistema osagarriarena baino hobea izan behar da.
- Zergetan enpleguko BGAEek tratu hobea izan behar dute banakakoek baino.
- Errenta bidezko erreskateari ogasunek tratu hobea eman behar diote kapital bidezko erreskateari baino.